

## **BEZEROAREKIKO HARREMANAK**

Bezeroarekin uneoro harremanetan mantentzea oso garrantzizkoa da, horretarako edozein zalantza edo ekarpen berririk egin nahi izanez gero, gu prest izango gara laguntza eskaini eta ideia berri edo hobekuntzetarako ere ateak zabalik utziko ditugu: webgune bat sortu eta bezeroen esku jarri dezakegu publikoa izan dadin. Gainera, bazkide talde bat izatea gustatuko litzaiguke, horiekin hilean behin bildu eta bezeroarekin kontaktuan egongo gara edozein proposamen edo kexu aurkeztu nahi badute ere. Horien artean, ordezkariak aukeratu eta beraiekin kontaktu zuzen bat eduki nahi genuke astean behin beraiekin elkartzuz eta enpresaren aurrerapen eta arazoen berri beraiei ere emanez.